

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

---

CANVAS metodoaren pieza, gure negozio-ereduak funtziona dezan beharrezkoak diren aktibo nagusiak deskribatzen dituena

### ELEMENTU GARRANTZITSUENAK

**Baliabide fisikoak** produktuak manufacturatzeko instalazioak, bulego-eraikinak, ibilgailuak, makineria, sistema informatikoak, salmenta-puntuak eta banaketa-sarea barne hartzen dituzten baliabide motak dira. Gure kasuan, Ordenagailuak, bulego eta telefonoa.

**Baliabide intelektualak**, honako mota hauek dadue: markak, jabearen ezagutza, patenteak eta egile-eskubideak, sozietateak eta bezeroen datu-baseak. Garatzeko zailak dira, baina behin lortuz gero, sekulako balioa dute. Gure kasuan, norbaiten aplikazioa egiteko gaitasuna, salmentarako eta antolaketarako trebetasuna, moda diseinatzailea edo estilista bat.

**Finantza-baliabideak**, material eskaerak egiteko, soldatak ordaintzeko, edozein motatako erosketak egiteko edo negozioa zabaltzeko kreditu lerroak. Gure kasuan, enpresa martxan jartzeko funtsak geure aurrezkietatik, familiaria edota banketxeari mailegua eskatuz eta gobernuak ematen dituen laguntzak gazte ekintzaileentzat izango lirateke.